

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Esfortzu fisikoaren intentsitatea eta iraupena erregulatuz eta dosifikatuz nork bere gaitasun fisikoak hobeto kudeatzea eta horrek osasunarekin duen erlazioaz jabetzea, ikaslearen garapen pertsonalean laguntzeko. Egunerokoan norberaren janzkeraz arduratzen da, era berean ikastolako ekipamendua zaintzeko gaitasuna erakusten du.	1.1. Heziketa fisikoa egitean arropa eta higiena zaintzen ditu.
2. Edozein jarduera fisikoaren aurrean beroketak duen eragina identifikatu eta beroketa orokorra egiteko jolasak eta jarduerak bildu eta praktikatu.	1.2. Bere ezaugarri fisiko/psikologikoak ezagutzen eta onartzen ditu eta hobetzeko ahalegina egin du.
3. Ikasleek ingurune egonkorretan taldeko kirol eta jolasetan aurkariaren taldeari irabazteko estrategiak —zehazki, elkarlanerako eta aurka egiteko estrategiak— erabiltzen jakitea, eta, horren ondorioz, taldeko kirolak praktikatzearan eraginkorrangoak izatea lortzea.	1.3. Planteatutako jardueretan gustora hartzen du parte eta jarrera positiboa du.
4. Gorputz espresio orokorraren bidez, koreografia baten oinarritzko ezaugarriak eta ezagutzak eskuratzea, taldearen indar puntuak nola ahultasunak identifikatuaz. Taldeak dituen gaitasun maximoari egokituta dagoen koreografiaren aurkezpena osatzea helbururik nagusia izango da.	2.1. Beroketa jarduera egokien bilduma egin du.
	2.2. Beroketa jarduerak autonomiaz era egokian egiten ditu.
	3.1. Taldeak errendimendu motorrak nola emaitzak beraien aldera eramateko gai dira. Egoera desberdinetan erroka guztiak aurrera atera eta hauen emaitza egoki kudeatzen ditu.
	3.2. Lankidetzeta eta kooperazioa erabiliaz, lehiaz aparte, zeharkako heburu motrizak lortzeko gai da.
	3.3. Aurkariaren ezaugarriak, kokapena eta distantziak kalkulatu desplazamendu eta jokaldi egokiak burutu ditu.
	4.1. Mugimendu nola musika baliabideak erabiltzeko gai da.
	4.2. Gimnasioak koreografia burutzeko ematen dizkidan baliabideak ezagutzen ditu.
	4.3. Koreografia batek dituen oinarritzko faseak ezagutu eta praktikara eramaten ditu.
	4.4. Lagunen aurrean aurkezpena egiteko beharrezkoa diren tresnak erabiltzen ditu.
	4.5. Antzerki baten oinarritzko rolak praktikara eramaten ditu.